



Andreen aurrekua

EGUZKI DANTZA

Soka dantzak Lekeition

Iñaki Irigoien

Soka-dantzak dira Euskal Herrian ezagutu ditugun dantza sozialik zaharrenak. Emakumeek eta gizonak elkarturik eta eskutik oratuta egiten dute dantzan, herriko plaza inguratuz dabilen soka osatzen dutelarik, sokako lehenak markatuz dantzaren pausuak. Bizkaiko dantzatzei buruz irakur daitezkeen datu zaharrenetan era horretan egiten zela aipatzen da, eta horretan adibide dugu XVI. mendearen amaierako Iburguen-Cachopinen kronikan adierazten zaiguna, non soinu-tresnak, abestiak, danbolinak, txistuak eta albokak aipatu ostean haxe irakur daitezkeen:

con las cuales albocas tañen muy muchos y diferentes sonos dulces y muy suaves para bailar y danzar a su uso vizcaíno, trabándose por las manos muchos de ellos y todos los que quieren danzar. Y así hacen un muy grande corro de danza, metiendo y tomando por las manos a una mujer o moza entre medias de dos hombres. Y desta manera cantan y bailan y se huelgan y regocijan, comen y beben abundantamente como en bodas¹

Sasoi hartan gotzainek andre-gizonak elkartuta egiten zituzten dantzak debekatzeko helburua zeukaten ebazpenetan ere erraz aurki daiteke “trabados de las manos” delako adierazpen horixe berori.

Gure soka-dantzak, edo esku-dantzak, Erdi Aroan Europan zehar hedatuta zeuden dantzeekin lotuta daude. Izan ere, hauetariko batzuk dantzariak eskutik oratuta zeudela dantzatzen ziren, Thoinot Arbeau idazleak, 1589. urtean argitaratu zuen liburuan emandako dantzen deskripzioei esker ikus dezakegunez. Dantza hauetan handikiak izan ohi ziren protagonista

gehienetan, baina askotan euren jatorria herri xumearen dantzetan bilatu behar zen. Beste batzuen artean, Branle izenekoak nabarmendu ditzakegu, izan ere gaur egun Zuberoan bertan oraindik egiten den esku-dantzak berak Branlea izena baitu. Esan beharra dago, tamalez, Europako gainontzeko herri gehienetan mota honetako dantzak, gizonak eta emakumeak eskutik helduta egiten direnak, alegia, aspaldi galdu zirela, nahiz eta Euskal Herriak oraindik eurotariko batzuk gorde dituen, hantx hementika.

Aurrekua eta atzeskua

Dantza hauetan bi dira nabarmen agertzen diren dantzariak: sokako lehena, edo aurrekua, eta sokako azkena, edo atzeskua, alegia. Eurak dira soka zuzentzen dutenak, eta hori dela eta, sarritan herriko agintariak edo bestelako garrantzia zuten pertsonaiek betetzen zuten zerregin hori, auzokideen aurrean euren itzala eta nagusitasuna erakusteko errito gisa, nahiz eta gehienetan jai giroko dantzak ziren, andre-gizonak edo neska-mutilak elkartzeko eta ondo pasatzeko helburua zeukatenak.

Batzuetan, gehienetan ez esatearren, gizonetakoak genituen zuzendari, baina laster ikusiko dugunez, beste zenbaitetan andrazkoek ere beteko zuten lan hori.

Gizonen zuzendutako aurrekuak

Herritar guztiek zeukaten dantza hauetan parte hartzeko eskubidea, batez ere herriko jai nagusiak ospatzen zirenean. Gorago aipatu dugun bezala, handikiek ere parte hartzea oso arrunta zen, eta sarri apaizak ere dantzari izaten ziren eurekin batera. Hori dela eta, batez ere XVI eta XVII mendeetan, gotzainak dan-


tzan egitea debekatzeko hasi zitzaizkien abadeei eliza-bisitetan, batez ere andreekin batera eta eskutik helduta egiten zutenean.

Hona hemen Bizkaian aurki daitezkeen aurrekuari buruzko aipamen zaharrenetako bat: Migel de Bazterretxeak, Ursula anderearen senarrak, bere koinatua zen Joseph de Beingoleari, 1651 eta 1658 urteen artean gutun batzuk idatzi zitzaizkion Gizaburuagatik. Eskutitz hauek, Lekeitioko Uriarte dorreko familiaren artxiboan daude gordeta, eta Joakin Valle de Lersundik argitaratu zituen². Zeharo interesgarri deritzegu gutun hauei orduko bizimodua ezagutu ahal izateko, eta oso adierazgarriak eta zehatzak dira aurrekuari buruz ematen zaizkigun azalpenak, batez ere, prozesioetan eta eliza inguruko ekintzetan mutilek osatzen zituzten dantza taldeak deskribatzen dituztenean. Taldea zuzentzen duenari “mayoral” edo “errege” esaten zion, baina adierazpen interesgarriena soka-dantzari dagokiona da. Hara zer idatzi zion Migel de Bazterretxeak Joseph de Beingoleari 1652ko irailaren hamabian Gizaburuagako jaiaren gainean:

Las fiestas de Nra. Señora se an hecho con mucha paz y a gusto de todas las graçias a Nro. Señor = El S. Diputado General nro. conpadre las a yustrado con su persona vino el mesmo dia de Nra. S^a y aquel y el sigte asistio aqui y durmio dos noches en Beyngoolea y el P. Vicario vino también el lunes quien nos honro aquella tarde guiando la danza con doña Maria Perez y yo como coxo en la retaguardia con Doña Ursula. Fue la postrera dança y la mejor pues dançaron todos los vecinos con sus mugeres y no se permitio ni se atrevio a en-

1 CRONICA IBARGUEN-CACHOPIN. III. tomoa, 65 kuadernoa

2 Joaquín Valle de Lersundi. “UNA FAMILIA DE FERRONES. LOS BEYNGOLEA EN EL SIGLO XVII...”. RSBAP.- 3. eta 4. kuadernoak. San Sebastián, 1979.



P. Basso del. y lit.

Lit. de Delmas.

UN AURRESCU.

Viaje pintoresco por las provincias vascongadas. Juan E. Delmas, 1846

trar en ella ninguna muger soltera sino cassadas y donzellas = Y despues de zena a la noche guio tambien otra dança el S. Vicario que se hizo hastillas a cabriolas y vueltas y dice que para las bodas de Bmd. todabia le quedan reservadas fuerzas y aliento para hazer las demostraciones que deve.

Valle de Lersundik azaltzen digunez, Francisco Adan de Yarza Larreategi, Bizkaiko Ahalduen Nagusia, Ursula anderearen aitabitxi zen, eta bikarioa bera ere, Puerto lizentziatua, alegia, senide zuen. Garai hartako beste dokumentu batzuetan irakur daitekeenez, Antonio Lopez del Puerto zen orduko Lekeitioko bi-

karioa, eta ez zen, ez, dantzari makala, antza denez.

Benetan bikaina da Gizaburuagako jai nagusian handikiek zuzendutako soka dantzaren deskribapena. Aurrelari Lekeitioko bikarioa zegoen, Ursularen ahizpa Maria Perezekin, eta atzelari herriko handikia bere emazte Ursularekin. Garbi ikusi daiteke Ibarguen-Cachopinen kronikan deskribatzen den soka, bai aurrekulariaren, baita atzeskulariaren figura ere agertzen zaizkigula, eta hauekin atera behar ziren bikoteak ere bai. Ondoren auzotar guztiak euren emazteekin

sartuko ziren, baita dontzeilak ere. Sartzen ez zirenak dontzeila ez ziren ezkondu gabeko neskek ziren. Horretarako zubiak egiten ziren: dantzan egitera nor sartuko zen ikustatu eta kanpoan geratu behar zirenak zokoratu ahal izateko. Horrelakoak izaten ziren herrietako jai nagusiak, egiten zen aurresku nagusia agintariak zuzentzen zutelarik. Hala-koetan *danza real* izena ere ematen zitzaion, eta agintariaren makilari *vara real* esaten zioten. Ondoren, herritarrek elkarrekin dantzan jarraitzen zuten, eta agintariak erabakitzen zuten dantzen ordena, eskabideak txanda-

katuz, dantza berdin bi elkarren ondoren ez egiteko.

Azpmarratzekoa da Gizaburuagan egin zen dantza hartan Lekeitioko bikarioa bera ere tartean aritzea; gizon abila eginkizun honetan gainera, askotan ibilitakoa, antza denez. Ordurako, gotzainak hasiak ziren apaizek andrazkoekin dantzan egiteari buruzko euren iritziak adierazten, hasiera batean meza berri eta ezkontzetan zeregin horretan aritu ez zitezten, baina beranduago inoiz ere halakorik gehiago egin ez zezaten aginduz. Izan ere, 1662. urtean Frai Bernardo de Hontiberos gotzainak Lekeitioko elizan jarritako *auto de visita*, andre, gizon eta apaizen arteko dantzei buruz ziharduenean, oso argi azaltzen zuen debekuaren zergatia, gazteak *trabados de las manos* jostatzeko ari zirelako, eta ez Jaungoikoa gurtzeko.

Hara zer dioskun:

*haviendo reparado su Yllma. en las danças y vayles entre honbres moços y mugeres moças travados de las manos que en los dias festivos se usan por esta tierra, no para el culto divino sino para entretenimiento de ellos mismos, doliéndose gravemente de que se aya yntroduçido semejante abuso entre gente de tan antigua christiandad y nobleza, siendo como son dichas danzas ocasionadas a liviandades y desembolturas y pendençias y extrago general de la juventud y perdiçion de sus almas*³.

Beranduago ere sarritan agertuko dira era horretako debekuak, nahiz eta, ematen duenez, herritarrek ez zieten jaramon handirik egiten; andrek eta gizonak elkarrekin dantzan egiten jarraitu zuten, eta gaur egun ere horretan dihardute. Apaizei ere, dantza hauetan parte hartzea, mozorrotzea, eta komedia ikuskizunetan ibiltzea ere debekatzen zaie "auto" honetan.

Hau da bertan agertzen dena:

Entendido su Yllma. que tambien los Saçer-dotes suelen concurrir y entrar en dichas danzas y disfraçarse para representaçiones de comedias, les manda pena de su maldiçion y excomunion mayor late sententie que de oy en adelante por ningun pretexto ni ocasion entren en dichas danzas ni en comedias.

Debeku hauek arazoa sortu zieten Lekeitioko apaizei, eta batez ere, gure ustez, bikario jaunari. Handik urte bira, Lekeitioko apaizen

kabildoa batu zenean, berriro ekarri zen gogorra apaizek dantza egitearen kontu honen inguruan, eta Bernardo de Hontiberosek agindua betetzea derrigorrezkoa zela ezarri zuen.

Hona hemen zer dagoen idatzita:

*yten se decreto que en quanto al dançar de los beneficiados y servidores se guarde inviolablemente el auto de visita del Yllmo. y Rvmo. Sr. Obispo Fr. Bernardo de Ontiveros de gloriosa memoria y qualquiera que contraviniere a ello, por cada vez, sea multado en seis ducados de vellon, aplicados al arbitrio del cabildo y los cobre el mayordomo que es o fuere*⁴.

Argi ikusten dugu gotzain jaunak agindu zuena ez zela guztiz betetzen. Hamar urte beranduago, beste apaizen batzar baten ere, berriro gertatu zen debeku horixe gogorarazi behar izatea. Gainera, Apezpikutzako Bikario Arduradun Orokorrak, 1676. urtean, Logroñon berriro dakar gogora erabaki hura, apezpikua- ren eta kabildoaren debekuarena hain zuzen ere, eta berriro agintzen zaie apaizei araua betetzeko. Hona hemen erabaki hura:

*confirmamos el acuerdo echo por el cavildo y Benefiçados de las yglesias de dicha villa en orden a la observançia del dicho auto de visita, y mandamos se guarde, cunpla y execute*⁵.

Benetan gogor eutsi zioten gotzainen aginduen aurrean Lekeitioko apaizek eurenari, zeukaten dantzarako zaletasuna agerian utziaz.

Ez dakigu honekin amaitu ziren ala ez apaizen dantzak Lekeition, zeren eta urteek aurrera egin ahala, gotzainen debeku gehiago agertzen baitzaizkigu, orokorrean, jendeak aginduok betetzen ez zituen seinale. Hurrengo mendean berdin-samar jarraitu zuten kontuok, batetik elizako agintariak eskutik oratuta dantzan egitea heriozko bekatutzat jotzen zutelako, eta bestetik herri xeheak zein agintariak eurenari gogor eusten ziotelako, nahi eta behar zutenean elkarrekin dantzan eginez.

Ohikoa izan zen Lekeitioko herri-jaietan gizonak zuzendutako aurreku-dantza egitea 1936ko gerra hasi arte, eta hala agertzen da islatuta udalaren gastuetan. Are gehiago, Antonio Cavanillasek, 1857an Lekeitori buruz idatzi zuen liburuan aurrekuaren deskribapen zehatza idatzi zuen, zortziko izena emanaz. Mutil gazteek ematen diote hasiera, eskutik

helduta, sokako aurrekuak markatzen dituelarik pausuak. Sasoi hartako deskribapen zehatzena egin zuen, ondoren egingo direnen erakoak, hain zuzen ere.

Hona hemen zer zioen:

*El alcalde preside en las villas; en las anteiglesias los fieles, clavando en tierra los chuzos o espetones símbolos de su autoridad. El alguacil hace plaza, y agarrados de las manos los jóvenes, pasean en hileras el recinto acompañados del tamboril y del pito. De cuando en cuando el que va a la cabeza, o sea el aurrecu, o la primera mano, baila el contrapas y aplauden los compañeros. Esta es la carricadanza, el convite al baile, el prólogo por decirlo así. A poco rato sale una comisión a buscar la pareja para el primer bailarín y la conducen con todo decoro, sombrero o boina en mano. Pásanla por delante de todos los del zorcico para saber si es de recibio. Pónese á bailar solo el primero de la hilera, hace un saludo a la dama que corresponde con otro y se coloca en fila sin bailar. Con la misma solemnidad conducen la segunda pareja, o sea la del último de la hilera, y las restantes vienen todas de una vez sin que al recibirlas bailen los demás hombres. Hecho esto forman arcos, y pasan por ellos hombres y mujeres equivaliendo a una revista. Esta es la parte primera del baile; pero también la más grave y sin disputa la única antigua. Sigue el fandango y la tercera parte se llama arin-arin que significa pronto-pronto y es un alegre vivísimo, terminando todo con terribles encontrones ¿Por qué no darles su verdadero nombre?*⁶

Azken mendeetan Bizkaiko soka-dantza edo aurrekuaren egiteko ohiko eraren deskribapena dugu hau. Bertan, sokan parte hartzen dutenen jarduera agertzen da, erritua osatzen duena. Aipatzekoa da agintarien sinboloak eta kontrolak ere azaltzen direla, zer dantzatu-ko den erabakiz, eta nola txandakatuko diren zehaztuz. Sarritan liskarrak ere sortu ziren hau dela eta, batzuetan heriotzak ere eragin zituztenak, behin Areatzan gertatu zen bezala. Nabarmendu egingo dugu berak *terribles encontrones* hitzekin azaltzen duen hori. Sasoi hartako beste idazle batzuek, aldiz, *culadas* hitza erabiltzen dute. Biribilketak egiten zirenean, ohikoa zen dantzariak ipurdiaz elkar jotzea, eta Cavanillasek esanetan, behintzat, Lekeition ere jotzen zuten batak bestea atzeagaz.

3 PARROQUIA SANTA MARIA DE LEKEITIO. Fabrika liburua (1627-1678). Sig. 30-1. A.H.E.V. Derio. 173. Folioa.

4 PARROQUIA SANTA MARIA DE LEKEITIO. Kabildoaren Liburua (1622-1684). A.H.E.V. Derio. Sig. 7-1. 241- vto. folioan.
5 Liburu bera, 242 folioa

6 Cavanilles, Antonio. LEQUEITIO EN 1857. 134-135 orrialdeak



España artística y monumental... III. liburukia, 1850. Un aurrrescu en Begoña (xehetasuna), ilustratzailea Genaro Pérez de Villa-Amil

Lekeitioko gizonen zuzendutako aurrresku bi

Asko izan dira, jakina, menderik-mende Lekeition dantzatu izan diren aurrreskuak. Ondoren, bertan jaso izan ditugun datuetan azaltzen diren gizonen aurrresku-dantza bi nabarmendu nahi ditugu, oso interesgarritzat jotzen ditugulako guk-geuk, behinik-behin.

Lehendabizikoa, 1883an Isabel II.aren aurrean egin zena dugu, sasoi hartan erregina ohi eta Alfonso XII.a erregearen ama zelarrik. Behin baino gehiagotan egondakoa zen herrian, bai erregina zela, baita erregearen ama zela ere. Dantzan ondo prestatutako hamabi bikotek hartu zuten parte. Hala azaltzen digu "El Noticiero Bilbaino" aldizkariak:

El domingo anterior, y presidido por la reina D^a Isabel, que demostró gran complacencia en presenciarlo, se bailó en la plaza de Lequeitio

*un magnífico aurrrescu en el que tomaron parte doce parejas de las más peritas en la tradicional danza vascongada, las cuales fueron muy aplaudidas así por S.M. como por las personas de su servidumbre*⁷.

Lekeition aurrreskulari onak zeuden seinale. Bigarrena, berriz, 1895. urtean, San Inazio arratsaldean, mutiko eta neskatok egin zutena, oso gazteak denak. Aldizkarian idatzitako zehaztasun batzuk ekarriko ditugu hona:

se iba a bailar un aurrrescu, en la plaza de esta villa, por varios niños, de los cuales el que más apenas si contaría diez primaveras" ... "ya estaban los jovencitos en rueda, y el que marchaba delante empezaba a bailar el aurrrescu" ... "con picaresca gracia bailó a su tur-

*no el aurrrescu el niño a quien correspondía; y concluido éste, entre los aplausos del público, fueron a elegir niñas dos de los mozalbetes más granados de la infantil cuadrilla" ... "fueron llegando a la plaza hermosos grupos de aristocráticas niñas, entre las que recordamos a las hijas de los señores don Alberto de Gaminde, don Ricardo de Madrazo, don Francisco de Retortillo y don Julián J. de Aldecoa, que lucieron sus gracias y habilidades bailando con perfecto compás y sin igual donaire..."*⁸.

Nagusiek ez ezik, gazteenek ere egiten zuten dantzan aurrreskuan, ohitura ez galtzeko. Francoren garaian gizonen aurrresku zuzentzeko ohitura galdu egin zen, eta ez da oraindik berreskuratu. Lekeitioko gazteei dagokie orain lan hori.

⁷ EL NOTICIERO BILBAINO, 1883/8/12

⁸ EL NOTICIERO BILBAINO. 1895/8/11.

Emakumeek zuzendutako aurrekuak

Christoph Weiditzek, 1529an, honela idatzi zuen emakume dantzari baten irudiaren gainean: *Honela egiten dute dantzan emakumeek Bizkaian*. Urte hartan heldu zen Espainiara eta andrazkoen marrazkiak egin zituen, baita Euskal Herrikoak ere. Gehienek antzinako burukoak zituzten, adar itxurakoak, eta oso interesgarri bihurtu ziren irudiok sasoi hartan Euskal Herriko emakumeak nola janzten ziren ezagutzeko. Euskal dantzari baten figura marraztu zuen, eta nabarmentzekoa da emakume batena izatea irudi hori.

Zaila gertatzen zaigu gaur egun gure folklorista aditu askok emakumeen aurrekuari buruz zeukaten iritzia ulertzea, gehienek andrazkoek ez zutela dantzan egiten esaten baitute. Baliteke uste horren jatorria eurentariko asko elizgizon izatetik etortzea, edo arrazoia sasoi puritanismoak eragindakoa pentsamoldea izatea, agian, emakumeen jokabidea ahalik eta mugatuena izan behar zuela pentsatzen zutelako. Hona hemen zer dioskun Aita Donostiak:

el hecho es que la mujer vasca no baila en el verdadero sentido que la palabra tiene entre nosotros. Asiste al baile y toma parte en él; pero como bien se ha dicho, es para "ser bailada", para que ante ella muestre el varón sus habilidades⁹.

Beste abade batek, Estanislao de Labayruk, zera esaten du:

Los bailes bascos, en su mayor parte, y por su naturaleza y carácter son de hombres solos o de solas mujeres; en los primitivos no hay mezcla de sexos¹⁰.

Baina hori ez da egia, eta ez dago zalantzarik aurrekuia edo soka-dantza bera andereek eta gizonek elkarrekin egiten den dantza dela, eta hortik datorrela gotzainen debekua: *trabados de la mano* egiten zirelako, izan ere.

Juan Carlos Gerrak, apaiz ez zenak, bide-nabar, oso modu erromantikoan azaltzen du emakumeek dantza hauetan zeukan jokabidea:

En actitud de estatua viva, a quien conturban las miradas indiscretas del público, bajos los ojos por la modestia ruborosa ... por el honor de que es objeto, se deja bailar como la diosa

primitiva, aplaudida por la multitud ... bella y graciosa en si misma, y por si misma, sin acción que profane la gloria, sin ademan que destruya la apoteosis¹¹

Ulegaitzak dira jakitun hauen hitzak. Euren sasoi aldizkariak irakurtzen baldin baditugu, erraz ikus dezakegu idatzi zutena ez zela zuzena. Gizonezkoek zuzendutako aurrekuak askoz gehiago izan dira, baina emakumeek ere zuzendu izan zituzten sarritan, eta horixe da idatzi dudana beste artikuluko baten garatu nahi izan dudana ideia nagusia¹².

Bizkaiko beste herrietan emakumeek zuzendutako aurreku bi

Asko dira andrazkoek zuzendutako aurrekuen adibideak, uste izan dena baino gehiago. Euskal dantza gaitzat duen lehen irudia emakume batena dela ikusi dugu, adibidez, eta horri esker, bada-kigu XVI. mendean bertan eurek ere dantzan egiten zutela, baina pentsatzekoa da aurretik ere hala gertatzen zela.

Aipatu den lanean agertzen diren bi adibide aurkeztuko ditugu: bata Bermeokoa eta bestea gaur egun Bilboko auzo den Abandokoa.

Hona hemen Bermeokoari buruz 1885ko aldizkari batean idatzi zena:

El día 27 por la tarde una nutrida salva de cohetes anunciará la salida de la música a dar el paseo anunciando la fiesta. La mañana del día de San Pedro harán el tradicional aurrecu las muchas jóvenes que se dedican al gobierno de la pesca; las cuales, en número de setenta u ochenta, irán precedidas de la música desde el puerto a la plaza, ostentando todas ellas un traje claro con sus pañuelitos rosa al cuello, excitando de esta manera la curiosidad de los concurrentes; y después de haber hecho el aurrecu, marcharán con sus parejas y la música, recorriendo el pueblo y volviendo a parar al mismo punto de partida¹³

Bestea, *Irurac bat* aldizkariak dakar. 1869. urtean Olabeagako eliza berria inauguratu zen, eta Abandon ospatu zen jaia. Zera dio:

Con tal motivo hubo una fiesta a la que asistió el municipio y el señor gobernador de la provincia. Después de la bendición y misa solemne, se sirvió una comida de treinta cubiertos y por la tarde se bailaron varios aurrecus, uno de ellos por las agraciadas hijas de ambas riberas, las cuales metieron en rueda al gobernador Sr. Tosantos, al alcalde Sr. Zugasti y a otros individuos, que no tuvieron más remedio que colgar su gravedad para hacer piruetas al son del tamboril, lo cual les valió estrepitosos aplausos. Al terminar la tarde acabó la fiesta, dando el alcalde vivas al corregidor de Vizcaya, a los fueros y a la república de Abando y otros los dieron al Sr. Zugasti¹⁴.

Erraz aurki daitezke Bizkaiko herrietan antzeko argibide gehiago, baina bi aipamen ekartzea nahikoa izango delakoan gaude gu, behintzat.



Die Trachtenbuch, Cristófer Weiditz, 1529. Honela egiten dute dantzan Bizkaian

9 P. Donostia "TXISTU Y DANZAS". Obra Literaria. Conferencias II. V. tomoa 111. orrialdea E.I.

10 Labayru, Estanislao J. de. "HISTORIA GENERAL DE BIZCAYA". I. tomoa 730. orrialdea

11 Guerra, Juan Carlos. "EL AURRESKU". Euskaltzaindiaren eskuetan dagoen manuskriptoan. Microfilm 4790-Guerra. Azken finean Guerra eta gero Aita Donostia, Castro y Serranok esandakoa errepikatzen daude.

12 Irigoien Etxebarria, Iñaki. "HONELA DANTZATZEN DIRA EMAKUMEAK BIZKAIAN". Euskal Museoa-Bizkaiko Dantzarien Biltzarra.

13 EL NOTICIERO BILBAINO.,1885/6/26.

14 IRURAC BAT, 1869/9/12.

Lekeitioko emakumeak zuzendutako aurrekuak – eguzki dantza

Gorago esan bezala, gizonezkoek zuzendutako aurreku-dantzez gain, emakumezkoek zuzendutakoak ere bazeuden, hain ugariak ez baldin baziren ere. Izan bedi kontuan lehen aipatu den dantzariaren irudi zahar horrek, 1529koak hain zuzen ere, Lekeition andrekin egiten dutenaren antz handia duela.

1682 urtekoa da Lekeition nesken dantzei buruz ezagutu dugun daturik zaharrena, eta Auriako jaiari buruz ari den agiri batean agertzen da. San Pedro jaien prestaketak San Juan egunean hasten ziren, eta arratsaldean, behin errosarioa amaitutakoan, elizako atetik hasi eta prozesioa egiten zen Auriaraino, herritik kanpo kokatuta zegoen zelai bateraino, hain zuzen ere. Herritarrekin batera agintariak eta apaizak ere bertan zihozten, eta azken hauek gora-goraka hasi ziren, han jai-giroa baitzen nagusi bertan, eta ez erlijioa eta fedea. Orduko eskribauek protesta hauek jaso zituzten, eta horri esker dakigu marinelen anaidikoak ari zirela dantzari, eta neskak ere zeregin horretan gogotsu zihardutela. Joseph Ibañez de Gallate, eskribauek, jasotako dugu hau:

y he visto que ban Reximiento y Cavildo pero no se trata ni confiere cosa alguna entre ellos, sino van a un campo y allí empiezan a dançar muchos cofrades y ay también danças de moças, y todo lo que pasa en dicho paseo es profano y no tiene cosa espiritual¹⁵.

Hara hor neskek zuzendu zuten dantza baten lehen aipamena. Etorriko dira beste batzuk ere ondorik, batez ere XIX. mendeko udal kontuetan islatzen direnak. 1821eko ordainketa batean San Juan eguneko dantzari lagundu zutenei eta udaleko kideei eman zitzaizkien freskagarriak aipatzen dira. Egia da ez dela esaten neskek zuzendu zutela dantza hura, baina pentsa dezakegu lagundu zuten horiek eurak izango zirela¹⁶. Hor baino argiago agertzen da

1856ko beste ordainagiri batean neskak izan zirela dantzariak. Ea zer dioskun:

para los refrescos de las dos mañanas y las dos tardes los días de San Juan y San Pedro de las muchachas del baile según costumbre¹⁷.

Beste urte batzuetan ere erraz ikus daiteke neskak zirela dantzariak, *por las bailarinas el día de San Juan* idazten denean. Gainera, 1881an, eguneko zer momentutan egiten zen dantzari ere irakur daiteke: goizeko, eguerdiko eta arratsaldeko saioetan eskainitako freskagarrien berri ematen baita:

Cuenta del gasto suplido con las bailarinas de San Juan” ... “Junio 24, Por veinte azumbres de Sangría para los ensayos por la mañana, mediodía y tarde a razón de 6 rs. Uno¹⁸.

Beste urte batzuetan ere agertzen dira honelako ordainketak, baita bazkariak ere ematen zitzaizkiela aurrekuko dantzariari. El Noticieron, 1904. urtean, agertzen den Jai programan zera dakar:

Día 4 ... a las diez aurreku clásico por varias jóvenes de la localidad¹⁹.

Lekeitioko jai-programetan agertzen denez, dantza txapelketak egitera ere heldu ziren, 1905 urtekoa oso interesgarria delarik, lehiaketa hura neskekentzat eurentzat antolatuta baizen:

A las tres de la tarde, GRAN CONCURSO DE AURREKULARIS en el que tomarán parte las jóvenes que lo soliciten y se adjudicarán los premios de 30 y 20 pesetas a las mejores bailadoras de esta danza en el país vasco.

Aipatu beharra daukagu urte hartan bertan Euzko Alderdi Jeltzaleak Lekeition Batzoki berria ireki zuela. Hori dela eta, Euzko Gaztedik

evitar un motin que irremisiblemente se preparava, ha tenido su md la prudencia de mandar retirar el tamboril. En cuya vista acordó el Ayuntamiento pedir al Señor Alcalde se sirva mandar una informacion del caso, para que en su consecuencia se castigue como corresponde á los que hayan sido causantes de éste sucesso...”.

1816-6-28

“Habiendose tratado sobre vindicar el desacato cometido contra la autoridad del Señor Alcalde por alguna gente marinera en la tarde del día de San Juan Bautista veinte y quatro del corriente con el alboroto e insubordinacion que se dejó ver luego que salió á la plaza el baile acostumbrado de mugeres: Acordaron sus mrd. vuelva a salir dicho baile la tarde de este mismo día, sin perjuicio de cualquiera derecho que pueda haber en contrario, y sin que se entienda que el Ayuntamiento lo altera, ni la costumbre que haya podido haber en el particular, quedando ésta en el mismo estado en que se hallava antes de éste sucesso...”.

17 LEKEITIOKO UDAL ARTXIBOA. Sarrerren eta ordainketen aginduak. 1856. Nº 5.

18 LEKEITIOKO UDAL ARTXIBOA. Aurrekontuen eta Libramientoen kutxa.

19 EL NOTICIERO BILBAINO, 1904/8/23

jai ederra antolatu zuen San Juan egunean, eta urrunetik etorritako jende mordo batu zen herrian. Jai haren berri Bilboko egunkarietan agertu zen, interes handikoak direlarik bertan idatzi ziren aipamenak. Euren artean Patria aldizkariak jaso zuena erabiliko dugu hemen, denen artean zabalari ari zena hauxe berau zelako.

Kontakizun haren arabera, jendea Bilboko, Donostiako eta beste zenbait herritako portuetatik itsasontziz abiatu zen Lekeitiora, non meza ostean aurreku-dantza ederra antolatzen zen, eta alkate jaunaren aurrean dantzari bikoteak usadio zaharrak arautzen zuen erara azaltzen diren.

Ez zaigu zehatz adierazten norik zuzendu zuen dantza, baina badirudi oraingoan gizonezkoak izan zirela. Neskek zuzendutakoa, berriaz, arratsaldekoa izan zen, San Juanen prozesioa egin eta gero. Hala irakurtzen dugu aipatu dugun egunkarian:

Quando la religiosa ceremonia entró en el templo, en la plaza las neskak lekeitianas, vestidas con sus largas trenzas y largos mantones; bailaron con suma soltura y gracia el aurreku que se celebra todos los años en este día, que por su originalidad y orden en que se bailó, resultó muy interesante y distraído a los excursionistas²⁰.

Aurrekua dantzatzeko modu aproposan jantzita datozen emakume eta gizonezkoek osatutako talde bat erakusten duen argazki bat ezagutzen dugu, gure ustez egun horietan edo agian zertxobait beranduago egina izan daitekeena.

Jai-batzordeak hurrengo urtean ere aurreku-dantza antolatzeko gogoan adierazi zuen, eta antolaketa horretan, gizon eta emakumei gastuak zenbatekoak izan diren azaltzeko eskatzen die. Hona hemen zer dioen batzar hartan hartutako zazpigarren erabakian:

7º Celebrar un aurreku estilo clásico, y a dicho fin anunciar la admisión de proposiciones, en tiempo oportuno, de grupos de hombres o mujeres que se comprometan a celebrarlo con todos los gastos a su cuenta, fijando en la proposición la cantidad que piden les sea abonada; y en su vista el Ayuntamiento o la Comisión resolverá lo procedente o causará la adjudicación²¹.

20 PATRIA, 1905/7/1.

21 LEKEITIOKO UDAL ARTXIBOA. Udalak adostutako dokumentuak.

15 J.M.Ugartetxea y Salinas. “LA PESCA TRADICIONAL EN LEKEITIO”. Obras Completas. Lehen tomoa. 156/7. orrialdeak

16 1816ko akta hauetan argi geratzen da emakumeen aurrekua aspaldiko ohitura zela.

LUA Udal Aktak 1816-6-24

“El señor Alcalde hizo presente, que habiendo salido á la Plaza ésta tarde despues de las funciones de la Yglesia un baile de mugeres segun és de costumbre con licencia de su md, y estando varios hombres apalabrados y dispuestos a tomar la mano á las citadas mugeres, segun tambien costumbre, há sucedido que a vista de sus mrd, y de mucha concurrencia de gente, varios marineros presentandose en frente de dicho baile han impedido el que siga este en la forma regular, desobediendo abiertamente al Sr. Alcalde; en terminos que por



Andreen aurrekua plazan, 1880ko hamarkada. Artiz-Colmenares artxiboa

Jaiak hasi baino lehenago berriro azaltzen da gogo hau, baina oraingoan ez programan, ez eta ordainketetan ere, ez da inon agertzen andrazkoek aurrekuan egin zutenik. Hala ere, hurrengo urtean emakume dantzariak bazeudela azaltzen da, aurreku txapelketak antolatzen direlako, eta 1924 eta 1931n dantzan egin zuten neskei eman zitzaizkien sariak dira horren froga.

Udalak egindako ordainketetan agertzen den hurrengo aipamena 1933koa da; San Pedro eguneko Kaixarrankaren gastuak udalak ordaintzen ditu, arrantzale-kofradiak ez baitzuen dirurik. Agiriaren atzeko aldean hauxe irakur daiteke:

Entregado por el Sr. Alcalde en funciones a las niñas que bailaron el aurreku y otros bailas²².

Datu hauen irakurketatik, urtero-urtero emakumezkoen aurrekuak dantzatu ez baziren ere, Lekeition ohitura ez zela galdu ondorioztatu daiteke, eta bere doinu eta pausuak gorde egin zirela, ekitaldi batetik bestera izan ziren tarreak dantza behin eta berriro berreskuratzeko ahalbidetzeko modukoak zirelako.

Aipatu dugun azken datu honek, urte batzuk beranduago, andrazkoen aurrekua be-

rreskuratzeko harremanetan ibili ginenean, jaiak izan genuena baieztatzen du. Neska hauek, Markinako Zerutxu dantza-taldeari 1973an dantza erakutsi ziotenak hain zuzen ere, sasoi hartako batzokiaren ingurukoak ziren. Urte bete lehenago ikasi zuten dantza hau, eta, ikusten dugunez, San Juan eta San Pedro jaietan hasi ziren dantzan. Baita herriko jaietan ere, ezpata-dantza eta gorulari-dantzekin batera dantzatzeko zutelako batzokiko gazteek, horrela azalduta agertzen baita hurrengo urteetako udaletxeko jai-ordainketetan, 1936an Gerra Zibila hasi arte, izan ere momentu horretan jaiak antolatzeari utzi egin zitzaion, eta neskek ez zuten dantzan egin.

²² LEKEITIOKO UDAL ARTXIBOA. Aurrekontuen eta Libramientoen kutxa.

Batzokiaren inguruko neska haiek izan ziren ia berrogei urte beranduago Zerutxuri erakutsi ziotenak dantza hori, eta orduan inork ez zigun argi esan gerra-ostean dantza hau egin zen ala ez, dantzari hauek aipatzen zigutena gerra-aurrekoa zelako, batez ere, baina ondoren egindako ikerketei esker, gatazka zibila amaitu ostean ere behin baino gehiagotan egin zela aurrekuan jakin ahal izan dugu.

Lehenik eta behin, Francoren diktadurak ez zituen euskal-dantzek debekatu, Espainiako folklorea lantzea zelako orduko asmoetariko bat, baina hori bai, beti egin behar zen erregimenaren kontrolaren menpe. Horretarako sortu ziren erakunde bi: bata *Sección Femenina* eta bestea *Educación y Descanso*, eta hauen zereginetako bat Espainiako dantzak sustatzea zen. Matxinatutako armada ekainaren 19an Bilbon sartu ondoren, hurrengo egunean bertan, Franco Bilbora etorri zen, eta bere ohorean, San Mames futbol zelaian, euskal-dantzak egin ziren, aurretik *Euzko Gaztedik* egiten zituen eran. 1939an, data berean, berriro etorri zen diktadorea Bilbora *Fiesta de la liberación* ospatzera, eta berriro ere San Mamesen *Frente de Juventudes*ek antolatuta egin zen dantzan bere aurrean. Hala azaltzen da aldizkarietan, behintzat:

*Luego actuaron las hilanderas y espata-danzaris, vestidos con sus trajes típicos, y sus ejercicios, danzas y evoluciones gustaron extraordinariamente, siendo muy ovacionados*²³

Ez dakigu Lekeitioko talderik egon zen ala ez, baina handik egun gutxira, San Pedro egunean, badakigu bertako Sección Femeninako taldea dantzan aritu zela; beraz izan liteke hauek ere Bilboko ekitaldian aritu zirenen artean egotea.

Juan de Irigoyenek oso artikulua interresgarria idatzi zuen *La Gaceta del Norte* 1939ko uztailaren bian San Pedro jaiei buruz: *La restauración de las fiestas Patronales de las Cofradías de Pescadores*²⁴.

Ezagutzen ez dugun arrazoiren bat dela eta, itsas-gizonen jai-kofradiak berriztatzeke beharra egon zen diktadura hasi zenean, eta Juan de Irigoyen idazleak Lekeitiokoa izan zela lehen esaten du. Euskal Herriko historia nahiko ondo ezagutzen zuen gizon honek, Kaixarrankari buruzko artikulua ederra idatzi zuen,

23 LA GACETA DEL NORTE, 1939/6/20.

24 LA GACETA DEL NORTE, 1939/7/2.



Gizonezkoen aureskua Lekeitioko plazan. Blanco y Negro, 1905-7-5

nahiz eta batez ere pilotari buruzko artikulua idazten zituen *La Gaceta*an.

Cuando las señoritas de Organizaciones femeninas de Falange Española Tradicionalista y de las Jons., se sumaban al festejo y obtenían aquel éxito magnífico de finura y gracia, recibíamos parabienes y felicitaciones, que derivábamos en justicia hacia ellas, porque supieron interpretar el sentido de la fiesta, eminentemente popular, resucitando sus antiquísimas danzas, trasunto de ceremonioso minué, salido del convencional ambiente de los salones, a la plaza de una villa con tradicional ceremonioso de verdadera elegancia espiritual.

No quisimos hacer uno de esos "pastiches", mitad fría restauración de un costumbrismo sin sentido, y mitad excentricidad pintoresca de un tipismo convencional. Quizá no hubiéramos sabido explicar esto a las lindas bailarinas de este día, que reanudaban un rito, pero con la soltura y gracia de la posesión seguida y constante de un entretenimiento habitual. En la cuerda, "Loreta", la popular vendedora de nuestra GACETA, aleccionaba como maestra a las señoritas en el baile que supo bailar ella con maestría hace treinta

y cinco años. Las muchachas ataviadas, con magníficos pañolones de los llamados de "ocho puntas", formaban la cuerda de baile, a cuyos extremos "Mari Carmen" y otra linda "figurilla", cuyo nombre siento no recordar, componían con su airoso punteo de pies y la gracia alada de aquel brazo extendido portando un breve pañuelito de encaje, una de esas suntuosas porcelanas, maravilla de modelado y colorido que asombran en las vitrinas de un museo.

Ederra eta egoki idatzitakoa da aureskua-ren deskribapen hau. Idatzian sumatzen den giroa, bai argazkietan, baita 1529ko irudian zein ondoren egin zirenetan ere, igarten dena bezalakoa da: y la gracia alada de aquel brazo extendido portando un breve pañuelito de encaje. Gauza berbera esan daiteke dantzari buruz: una de esas suntuosas porcelanas, maravilla de modelado y colorido que asombran en las vitrinas de un museo. Zaila da era zuzenagoan eta zehatzagoan dantza honen itxura aipatzea. Ondo idazten zuen Juan de Irigoyenek, eta erraz antzeman daiteke hori bere gainontzeko artikuluetan ere, gehienak pilota-jokoaren gainean idatzitakoak.



Emakumeen aurrekua plazan 1930eko hamarkada

Ondoren San Pedroren irudiarekin egiten den prozesioa deskribatzen du, Kilin-Kala eta guzti:

hasta la porción del muelle emplazado en la que fue "Nasa Mayor" donde se reproduce la tradicional "quiñadía" (movimiento de las andas hacia el mar). –Gero gizonetzkoek egiten duen egiten duten aurrekua, goizean neskek egiten dutenaren ordainetan:– *Con que los "hombres" correspondían al "baile de las muchachas", que les sacó a la cuerda de la mañana.* –Kaixarranka dantza behin baino gehiagotan egiten dela ere idazten du. Arratsaldean egin izan zen, bezperak izan ostean:– *Terminada la solemnidad religiosa, autoridades e invitados, se situaron en la terraza inmediata a la lonja de la Cofradía, para ver el baile de la "Cacharranca", cuya primera actuación se hace bajo la hornacina de la imagen de San Pedro.*

Asko izan ziren gonbidatutako agintariak eta kanpotarrak, euren artean sasoi hartako arrantza kontuetako Espainiako agintari nagusia, Valtierra markesa, Bizkaiko Gobernadore Zibila, eta beste batzuk zeudelarik.

Bukaeran Valtierra markesak udaletxeko balkoitik hitzaldia ere egin zuen, Franco goraituz eta bere ekintzak nabarmenduz. Azkenean egun haietan ohikoa zen bezala, *Arriba España* eta *Viva España* ere oihukatu zituen.

Aldizkarian bost argazki agertu ziren: bi prozesioarenak, bat Kaixarranka dantzarena eta beste biak nesken aurrekuari ateratakoak. Garbi dago, beraz, gerra-ostean ere dantzatu izan zela andreen aurrekua Lekeition, dantzariak *Sección Femenina* izenarekin aurkeztu baziren ere.

Sasoi hartako beste aldizkari batean irakur daitekeenez, badirudi lekeitiarrak 1942. urteko Karmengo Amaren egunean Santurtzin dantzatu zirela. Ama Birjinaren ohorean egindako prozesioaren ostean, *Las Falanges del Mar* delakoa eratzean bertan batu ziren orduko agintariak, eta hori zela eta, inguruko gainontzeko arrantzaleen kofradietako ki-deak ere bertara hurbildu ziren. Hala agertu zen idatzita:

A las seis y media.- Comenzará el acto, organizado por la Delegación Regional de la

Zona Norte del Servicio Exterior, para constituir Las Falanges del Mar en el que tomarán parte –hemen agintarien izenak agertu ziren idatzita, baita beste zenbait lagunenak ere, ondoren hohela amaitzeko:– Cofradías de Pescadores a cuyo frente se situarán los remeros de traineras con sus clásicos atuendos. Al final del acto un grupo de los gitanos vascos, de Lekeitio, harán una exhibición de sus bailes tradicionales ante las Autoridades²⁵.

Harritu egiten gaituzte kazetariak erabili zituen hitzak Lekeitioko parte hartzaileak izendatzeko: *los gitanos vascos de Lekeitio*. Ez dakigu zergatik eman zien izen hau Lekeitioko dantzariari, baina euren ohiko dantzak egiteko joan ziren hara ijito hauek.

Ekitaldi osoa filmatzeko *Departamento de Cinematografía*ko taldea ere etorri zen Madriletik. Ez dakigu film hori gaur egun gordeta dagoen ala ez. Aldizkariaren hurrengo egunetako berrietan agintarien hitzaldiak agertzen dira, baina ezer gutxi jaiei buruz, itxura denez, leku ezak eragindako arazoek... *nos impiden ocuparnos con toda la amplitud que fuera de desear de la reseña de los diversos actos de que ayer fue testigo el pueblo santurtziano.* Jakina, ez daukagu Lekeitioko ijitoek zer dantzatu zuten jakiterik.

1945ean ere berriro egin zen andreen aurrekua. Horren lekuko da 1974an Zerutxu taldeak dantza antolatu ostean lortu ahal izan genuen argazki zaharra. Gerra-aurrekoa zelakoan geunden, baina ondoren eskuratu genituen datuek azaltzen dutenez, 1945koa zen, berriro dantzatu zen urtekoa, hain zuzen ere. Irudia ezustean eskuratu genuen Markina-Xemeinen, bertako jendeak gordeta baitzegoen. Hango dantzariak Lekeitioko neskekin batera egin zuten dantzan, eta herriko udaletxeko eskaileretan agertzen dira danak, euren dantzan egiteko arropekin jantzita. Mutilen artean Victor Olaeta agertzen da. Datu honek Segundo Olaetak, Victorren aitak, sortutako *Artibay* izeneko dantza taldera garamatza.

Segundo Olaetak, gerra aurrean, Gernikan sortu zuen *Elai Alai* taldea, umeez osatutakoa. Leku askotan eskaini zituzten euren ekitaldiak, eta gerra sasoiari, Eusko Jaurlaritzaren laguntzari esker, *Eresoinka* taldearekin egin zen bezala, Europan zehar ere ibili ziren gure dantzak erakusten. Gerra amaitu

²⁵ LA GACETA DEL NORTE, 1942/7/9.

La restauración de las fiestas Patronales de las Cofradías de Pescadores

El día de San Pedro en Lequeitio

La fiesta de San Pedro, en Lequeitio, ha sido la primera de este carácter, a la que seguirán la del Carmen, en Santurce; la Magdalena, de Bermeo; la de Santa Clara, de Ondárroa.

Cuando las señoras de Organización femenina de Palangre Española Tradicionalista y de las Jotas, se sumaban al festejo y obtenían aquel éxito magnífico de altura y gracia, recibimos parabienes y felicitaciones, que derivábamos en justicia hacia ellas, porque supieron interpretar el sentido de la fiesta, eminentemente popular, resucitando una antiquísima costumbre, trasunto de ceremonioso mimar, salido del convencional ambiente de los salones, a la plaza de una villa con tradicional ceremonial de verdadera elegancia espiritual.

No quisimos hacer uso de esos gustos, mitad fría restauración de un convencionalismo sin sentido, y mitad excentricidad, puerilesca de un tipismo convencional. Quisimos habilitar como emplazamiento a las lindas bañeras de este día, que recordaban su rito pero con la soltura y gracia de la posesión segura y constante de un entretenimiento habitual. En la contra, «Loretta», la popular vendedora de nuestra GACETA, seleccionaba como mientras a las señoras en el baile que supo bailar ella con maestría hace treinta y cinco años. Las muchachas, vestidas con magníficos pañuelos de los llamados de ocho puntas, formaban la cuerda de baile, a cuyos extremos «Mari-Carmen» y otra linda «Sagrilla», cuyo nombre sirvió en recordación conponiendo un aireo punto de pie y la gracia alada de aquel brazo extendido portando un breve pañuelito de encaje, una de esas señoras porfirianas, maravilla de modelada y coqueo que asombran en las vitrinas de un museo.

Como este baile, toda la fiesta lequeitiana, perfectamente encajada en la tradición venerable que representa la Cofradía de Lequeitio, asistida esta vez, como en los días de su máxima significación, por autoridades y jerarquías.

Grave y solemne la misa mayor y el responso en la magnífica Basílica, que exhibía este día un sumoso tercio, riquísimamente bordado. Concurrida la procesión de la tarde, portando la imagen del santo titular del gremio, hasta la porción de muelle emplazado en lo que fue «Nava Mayor» donde se reproduce la tradicional repulidada (movimiento de las andas hacia el mar) esperada con incoercible servilismo en balcones y ventanas de arrastramiento. Más que nunca, estirada y severa la Cacharranca, el alba tris-



que de Valterra, acompañado del Sr. Inspector general de este Servicio, don Ramón Rodríguez de Castro y del secretario, Sr. Conde de Ribasno. Poco después llegaron a la Cofradía el Sr. Comandante de Marina, don Guillermo Cincunegui, con su ardiente; el Sr. Alcalde de Lequeitio, don Ramón de Ibarra; el jefe local de Palangre Española Tradicionalista y de las Jotas, don Pascual de Larranbal; coiductor Sr. Zuzana, ayudante de Marina don Julián Méjico, quienes precedidos de tamboril y bandera de la Cofradía accedieron a la Basílica, a cuyas puertas fueron recibidos por el coiductor don Pedro Bustinduy, quien saludó a las autoridades y ofreció el agua bendita, colocándose el cortejo en el presbiterio, ocupan-



do las cabezeras de cada lado el señor Marqués de Valterra, que ostentaba, además de la de su cargo, la representación del Excmo. señor Ministro de Industria y Comercio, conforida por expresivo telegrama exculpando su asistencia por ordenes llamadas del Gobierno y admirándose en su espíritu y causando la delegación indicada.

Ocupó la agrada cátedra el coiductor señor Zuzana, trazando admirablemente la fisonomía del príncipe de los Apóstoles, estableciendo su el ardiente y su profundo amor al divino Maestro, que la valieron su significación etérea en los destinos de la Iglesia. Ofició de púente el Sr. arcopreste don Juan Marlarra, cantándose la misa «Te Deum laudamus» de Perosi.

Cantado el responso, la comitiva hizo su entrada en la Casa Consistorial para ofrecer sus respetos a la Corporación Municipal, que agasajó a los visitantes con un vino de honor mientras se bailaba en la plaza la vieja «Dama y el Niño». Después, a la que asistimos al principio.

Autoridades e invitados, acompañados por el alcalde y concejales, recorrieron los muelles hasta el extremo del de la Cruz, admirando la belleza de las perspectivas y la pureza de la villa, realmente extraordinaria en un pueblo pesquero.

En la misma Casa de la Cofradía tuvo lugar la comedia de plato único (algo reforzado por sutil estinguo, que dejó en época de entrada, lo que fue pella nutrida) sentándose a la mesa treinta y cinco señoras y autoridades. Entre las invitadas, Junta de la Cofradía y Federación pesqueros por el señor Marqués de Valterra, que tuvo a su derecha al Sr. Arcopreste y al pres-

de la colaboración, hasta el sacrificio generoso, de todos los que sienten ansias de regeneración y crean en la misión providencial del Caudillo, que podía hacer unos días en la cubierta del glorioso «Canarias» a los pescadores, su porción de esfuerzo constructivo, que como buenos lequeitianos lo habéis de dar como lo debéis vuestros antepasados en ocasión similar, cuya paridad sorprende y entusiasmara.



El Sr. Marqués de Valterra, al agradecer el agasajo, evaluó en primer término el espíritu de la fiesta, que con arte tan típico y localista, era fundamentalmente esportivo, porque lo español es su raíz, lo sustancial de cada pueblo, y no las imitaciones que mal tradiciones se despegan.

El Caudillo, que estima en todo su valor estos aspectos de la vida nacional, sagrados en valores tradicionales, siente especial predilección por mantenerse en contacto con estos ambientes, en los que descubre la fuerza de verdaderas instituciones, a las que procura dar vida, no con palabras, sino con hechos y

disposiciones que han ido apareciendo en el Boletín de Estado y cuyos resultados palpables han podido de-



otros con el fervor y entusiasmo de llamados a una colaboración y prestación de servicios, que en la Nueva España nadie puede ni debe escusar, por comodidad negligente, o por falta de fe en los destinos de la Patria.

El fervor y entusiasmo con los que se expresa el jefe de los Servicios Nacionales de Pesca, impresionado a los presentes, que intranquien un hermoso discurso con aplausos frenéticos.

Terminados los discursos, la comitiva se dirigió a la Basílica, y en este momento llega el Excmo. señor Gobernador civil y ocupa su lugar en el presbiterio para ser el «Miguelito» de las Virreinas solemnes y salir luego a la procesión recordada más arriba, que terminó en la iglesia, dando a besar la reliquia del santo. Y terminada la solemnidad religiosa, autoridades e invitados se situaron en la terraza inmediata a la lonja de la Cofradía, para ver el baile de la «Cacharranca», cuya primera actuación se hace bajo la hornacina de la imagen de San Pedro, que aparece ingenua y profanamente adornada, gustando extraordinariamente a los que no conocían el clásico y significativo sentido ritual del extremo baile, que recurre episodios de la vida del pueblo, en los que la Cofradía se manifiesta en la posesión de su tradicional baila, enfrente de los que contradicen esa posesión.

En el Archivo de la villa y en el de la Cofradía existían las terminaciones de la Excmo. señor Marqués de Valterra, acreditando este extremo a la Cofradía y mandando que por medio se pasara entorpecimiento al coqueo y baile, de cuya celebración en



la forma acostumbrada, se liberaría todos los años el oportuno testimonio por el Escrivano del fe de hechos, de tercio en esta función.

Terminados el último baile de la «Cacharranca» y el anuncio de honor el Sr. Marqués de Valterra dirigió su autorización y edición palabra al pueblo congregado en la plaza, desde el balcón principal del Ayuntamiento.

Agradeció en primer lugar su colaboración y participación en los brillantes festejos, a quienes habían tomado parte en los mismos, ponderando el arte y la gracia de los bailes, particularmente el de las señoras de Organizaciones Femeninas de Palangre Española Tradicionalista y de las Jotas, maravilla-deducción de altura y gracia que sería vano buscar en los que no respondían a ese sentido tradicional honrado, honrado de las manifestaciones artísticas del pueblo, que cuando este pueblo es español, crea las maravillas de arte que nos envidian los pueblos.

Reconoce hoy con más precisión y con la oportunidad de aque-



Real y formulista de la Cofradía, con historia que hemos traído alguna

eta gero, Castor Uriartek, Markina-Xemeingo Esperantza fabrikako zuzendariak lagunduta, Segundo Olaeta Markina-Xemeinera etorri zen. Bertan musika-banda eta Artibay izeneko taldea antolatu zituen.

Arrakasta handia izan zuen talde honek 1944ko maiatzean Bilbon egin zen Congreso Eucarísticoan. Segundo Olaetak asmatutako, eta Xemeingo ezpata-dantzan oinarritutako dantza bat antolatu zen, San Miguel de Arri-txinaga izenaz ezagutu zena. Bertan, borroka moduko bat egiten da aingeru onen eta gaiz-toen artean. Dantzariak euren ezpatekin oinarri moduko bat egiten dute San Migel bertara igotzeko, eta gainean dagoela, salto egin eta aingeru onei ematen die bere laguntza txarrak menderatzeko. Dantza proposa sasoi hartarako. Hona hemen zer zioten denbora hartako kazetariak:

Los danzaris del grupo artístico "Artibay" (Marquina) ejecutarán la siguiente danza religiosa: 1º Un grupo de doce robustos muchachos ataviados, llevan en medio al que representa la figura de San Miguel Arcangel, el cual ejecuta ante el Santísimo un brioso baile triunfal. A sus lados van dos jefes, que figuran al Espíritu del Mal y el género humano. El grupo de danzantes forma una parrilla y sobre ella eleva a San Miguel. Entonces el Espíritu del Mal y el representante de la Humanidad danzan juntos como entablando amistad; pero luego simulan reñir entre sí y el Mal Espíritu es vencido por el género humano con ayuda del Arcangel San Miguel 2º.

Segundo Olaeta bera izan zen dantzaren soinua asmatu zuena. Taldeak musika- eta txistulari-bandak ere bazituen, dantzariak gain, eta hara eta hona ibili ziren egun haietan, baita Lekeition ere. Congreso Eucarístico hura egin zeneko urte berean San Antolin jaietara ere etorri ziren denak. Domekan, irailaren 3an, hamabietan, musika-bandak eta dantzari-taldeak emanaldi eskaini zuten. Hara zer dakarren programak:

A las 12, Gran Concierto Musical, por la Banda del "Grupo Artística ARTIBAY" de Marquina, y a continuación EXHIBICION DE DANZAS SIMBOLICAS por el mismo Grupo a base de AURESCU y el famosísimo BAILE DE SAN MIGUEL DE ARRECHINAGA.

Ikus daitekeenez, San Migelen omenezko dantza berria ikusten ia lehenak izan ziren lekeitiarrak. Baita hurrengo urtean ere, 1945an,



jai programak adierazten duenaren arabera. Artibayko dantzari-talde bi etorri ziren, bata umeek osatutakoa, eta bestea helduena. San Antolin eguneko arratsaldean umeek egin zuten dantzan, Olaetak erakutsitako ikuskizuna eginez eta txistulari eta musika-bandak lagunduta. Kaxarranka ere egin zuten, Pedro Murelagak dantzatuta. Zera dakar jai programak:

EXHIBICION DE DANZAS

*Por el GRUPO ARTISTICO INFANTIL "ARTIBAY", y a continuación el baile popularísimo "KAXA-RANKA", a la antigua usanza, por el maravilloso bailarín Pedro Murelaga "Chamboliñ". Actuará en estas Danzas el grupo de Tamborileros y la Banda del "ARTIBAY"*²⁷.

Hurrengo egunean, irailaren hiruan, Artibayko dantzari nagusiekin batera, Lekeitioko neskek emakumezkoen aureskua dantzatu zuten. Jai programan hau agertzen da:

A la una de la tarde AURRESKU CLASICO Y DANZAS entre ellas la Danza simbólica de San Miguel de Arrichinaga, por el citado GRUPO ARTISTICO y señoritas de la localidad.

Jai-programan ez ezik, udal-ordainketetan ere garbi agertzen da neskek egin zutela dantzan. *Factura de Seijo, por alpargatas para las bailarinas del auresku.* Abarken ordain-agiria

bera ere gordeta dago udal-artxihoan. *12 pares alpargatas encapadas hechas a la medida Ptas. 6 - 96 metros cinta negra Ptas. 0,25.*

Urte bi beranduago ere, 1947an, berriz agertzen da dantzarien ordainketa: *Refresco a las niñas del grupo de danzas que actuaron en la plaza pública*²⁸.

1945an dantzatu zirela frogatzen duten argazkiak ere egin ziren, bai dantzan ari diren bitartean, baita Artibay taldeko mutilekin batera ere.

Urte apur batzuk beranduago, eta abade batzuen laguntasunari esker, Acción Católica-ren barruan dantza-taldea sortu zen. 1953ko argazki batzuk ditugu, baina badirudi lehenago ere aritu zirela. Habsburgoko artxidukeak Lekeitiora etorri ziren 1951an, eta orduko aldizkariak dakarten moduan, *Dos jóvenes de A.C.E. femenina, vestidas de hilanderas (Rosita Eiguren e Hilaria Acarregui) ofrecieron a la princesa un ramo de flores*²⁹.

Talde honetako dantzariak gerra-aurreko ziren dantzak egiten zituzten, eta, tarteka, gorularien dantza batzuk ere mutil eta nesken artean. Emakumeen aureskuen musikak ere dantzatu zituzten, behin baino gehiagotan, baina azkenean hauek ere utzi zioten dantzan egiteari.

Lekeition ikusi ditugun agiritan dantza-talde bati buruz agertzen den hurrengo aipamena 1967ko udaleko akta batean dago, Fran-

cisco Okamika berrito alkate izendatu zenean, eta aurreko urteetako erabakien artean zera dakar:

Folklore. Nuestra participación en el plano folklórico, encargándose de enseñar y entonar a niños y jóvenes, llevará a cabo la organización de un grupo, fue ver estimular al pescador Juan Arrasate, que mantuviera vivas nuestras viejas tradiciones y danzas típicas, por lo que, con nuestro apoyo, tanto moral, como económico, se fundó el grupo "KAXARRANKA", que tan movida actuación tuvo en sus dos primeros años.

Txistularien bandari buruz jarraitzen du, eta lehenik nola berriztatu zen eta ondoren zelan desegin zen aipatzean, zera gehitzen da:

ello creó un mal problema para los danzaris, que no podía ejecutar sus preparativos y ensayos sin la presencia del Txistulari a cuyo ritmo bailaban, por lo que acordó la permanente la compra de un magnetofón, que se halla en nuestro poder, con cuyas cintas grabadas los sonos del mismo puedan reanudar seguidamente sus ensayos y prácticas adecuadas conducentes a su mejor preparación en las danzas, que tan solicitadas están por el turismo que nos visita.

*Al grupo en ausencia de Arrasate, e incluso cuando él esté, dirige el grupo la antigua danzante de espata-dantza y auresku, Margarita Uribarren*³⁰.

Talde honek urte askotan jarraitu zuen herriko jaietan parte hartzen, baita herritik kanpo ere, aureskulari ohi bat izan zelarik zuzendari.

Lehen esan dugunez, andrazkoek zuzendutako aureskuak Euskal Herriko toki askotan izan dira. Juan Inazio Iztuetak berak, Gipuzkoako dantzen historialariak, XVII. mendearen amaieran gizonezko, andrazko, mutil zein neskek zuzendutako soka-dantzak egin ohi zirela esaten digu. Bizkaiko artxihoetan ere, batez ere XIX. mendearen amaieran eta XX.aren hasieran, ez dira gutxi andrazkoek zuzendutako auresku ederren berri ematen duten aldizkarietan agertzen diren albisteen adibideak. Denborak aurrera egin ahala, batzuk azkenean galdu egin dira, nahiz eta herri batzuetan eurentariko zenbait berreskuratu egin diren.

Esan beharra dago Lekeitio izan dela, tarteka hutsuneak gertatu diren arren, antzinako forma eta soinua gorde eta ondoen zaindu izan duena.

28 LEKEITIOKO UDAL ARTXIBOA. Akta liburua, 1947ko maiatzaren 22a.

29 LA GACETA DEL NORTE, 1951/6/19.

30 LEKEITIOKO UDAL ARTXIBOA. Akta liburua, 1967ko otsailaren 12a.

1974. urtean andreen aureskua edo eguzki jaia berreskuratzeko Markina-Xemeingo Zerutxu dantza taldeak, egindako ikerketak

1970 urtearen inguruan, José Mari Egileor Amallobieta, Mundakako txistulariak, Lekeition egin ohi zen emakumeen auresku bati buruzko berri eman zigun, baita dantza honen musikak ere eman. Bera Mundakan jaioa zen, baina ama lekeitiarra zeukan, eta bertako jaietara sarri etorritakoa ere bazen. Txistularia izanik, bertakoekin harremanak ere bazituen. Hori dela eta, Santi Zapirainek, gerra-urretik txistularia izanik dantza ezagutu, eta bai gatazka gertatu aurretik, zein ondoren ere sarritan jo zuena, Egileorren aurrean jo zuen doinua, eta honek grabatu ondoren, pentagraman idatzi zuen. Hiru soinu ezberdin ziren. Musika hauek izan ziren guri emandakoak, eta hauek oinarriturik, Lekeition, 1971. urte inguruan hasi ginen ikertzen Felipe Amutxastegi eta biok.

Hemen eta han galdetzen ibili ondoren, azkenik, lortu genuen batzarra egitea euren gazte-denboran dantza ikusi zuten sasoi emakume talde batekin, euren artean XIX. mendearen amaieran jaiotakoak ere bazeudelarik, nahiz eta bertan ez zegoen dantzan egindako inor. Orduko alkatea ere bileran izan zen, eta bere gazte-denboran aureskua dantzatu zuen gizon nagusi bat ere bai.

Eurek emandako informazioaren arabera, sasoi hartako dantzari trebeenak nortzuk ziren jakin izan genuen, baita San Juan egunez hiru biderrez egiten zela dantzan. Are gehiago: Eguzki-Jaia izenaz ezagutzen zela ere jakinarazi ziguten, eta lehen dantza, *Albaku*, goizeangoiz egiten zela, zazpietako meza amaitu ostean, bigarrena, berriz, eguerdiko meza-nagusaren ondoren, eta hirugarrena, azkenik, arratsaldeko errosarioa errezatu eta gero.

Dantza-ekitaldi bakoitzean jantzi ezberdinak erabiltzen zituztela ere esan ziguten, batez ere sorbalda zeramatzatzen mantoiak aldatzen zituztelarik: Lehen dantzan, goizekoan, perkalezko gona, sorbalda setazko manto txikia, eta buruan ezer ez. Eguerdian gona beltz luzea, gona-azpiko zuri bordatua, puntilladun txanbra zuria, krespoiko mantoia eta oinetako beltzak, *malportezkuak*. Eta azkenean, errosario ostekoan, eguerdian erabili zuten arropa berbera, baina oraingoan mantoia aldatuz, katximirrezko handia erabiliz.

Esan dugu gorago bertan batu zirenak ez zutela aureskua dantzatu, baina 1932an dan-

tzan egin zutenen izen batzuk eman zizkiguten. Gizonen aureskua dantzatu zuenarekin aurreragorako geratu ginen, dantzatu zuena ikasteko, baina, tamalez, handik denbora gutxira hil egin zen, eta, ondorioz, bertan behera geratu zen gizonezkoen aureskuari buruz egin behar genuen ikerketa.

Interes handia piztu zuen gudan *albakuan* dantza horrek, eta Eguzki-Jaia izena erabiltzeak ere, Lekeition San Juan egunean eguzkiari eskainitako beste errito eder bat zegoela erakusten zuelako horrek, etxeetan erramuak jartzea izan litekeena bezalakoa. Tradizioz jantzitako errito eder ugari gorde izan dira solstizioa gertatzen den egun horretan.

Hasieran Jose Mari Egileorrek emandako partiturak erabili genituen, eta bertan irakurri ahal izan genituen soinuak, batez ere bat, ezagutu egiten zituzten han batu zirenetako batzuek.

Gure ustea zen Azkuek, lekeitiarra izanik, bere bildumetan soinu hauek jasota izango zituela, baina berehala konturatu ginen ez ziola garrantzi handirik eman bere herrian bertan emakumeek San Juan egunean egiten zuten dantza horri. Gainera, 1915ean txapelketa batean saria jaso zuen bere herri-kantutegian bertan ere ez zituen dantzaren melodiak jaso. Hitz bat bera ere ez. Beranduago aurkitu izan genuen aipamen bakarra berak zuzendutako *Euskalzalea* astekariko *Euskerazko Eresiak* izeneko argitalpenean irakur zitekeen. Azkuek bilduma honetako pieza bati *Neska-Dantzea* titulua ipini zion. Azpian Lekeition, San Juan egun goizez danbolinak lagundutako soinuarekin emakumeek Aureskua eta beste hainbat dantza egiten zituztela esaten du (*emakumeak auresku ta guztiko dantzea egiten dabe*).

Baina hau, guk esku-artearen genituen hiru melodietatik bat bakarra baino ez zen. Azkenean, beste biak bere abesti-bilduman topatu genituen, *Rondó de Tamboriles* izenburupean³¹, eta pianoaz jotzeko moldatuta zeuden. Argi dago melodia hauek ondo ezagutzen zituela, baina ez digu esaten zein esparrutan erabiltzen ziren musika hauek eta mozorrotu egiten zituela ere esango genuke geuk.

Azkenean, Alberto Akarregik, gerra-urrean txistulari izandakoak, eta itsasoan nabigatzen ibili eta gero herrira itzultitakoak, hiru musikak txistuaz jotzeko moldatuta zituela

31 Azkue, Resurrección María de. "CANCIONERO POPULAR VASCO-CANCIONES SELECTAS ARMONIZADAS POR EL AUTOR". Quinto grupo-Danzas sin palabras. Pág. 68.

jakin izan genuen, azken hauek izan zirelarik dantza berreskuratu zenean erabili zirenak.

Behin doinua lortuta, pausuak eta koreografiak batzea zen gure hurrengo lana, eta horretarako 1932an dantzan egin zuten اندرازkoekin batzen hasi ginen, eta esan beharra dago lekeitiar ugari agertu zela laguntzeko prest, eta interes handiz jarraitu zutela azkenean dantza aurkeztu zen arteko prozesu osoa.

Emakume haiekin egon eta gero, eta pausuak eta dantzaren koreografia finkatu ostean, Felipe Amutxastegik, Markina-Xemeingo Zerutxu dantza-taldearen zuzendariak, bere taldeko neskekin atondu zuen dantza osoa. Zalantzazko gauza batzuk, igarotako denbora zela-eta oraindik duda-mudan zeudenak, beste aureskuetan egiten zenarekin lotu ziren, eta honela 1974. urtean Lekeitioko jaietan eskaini zuen ikuskizuna neska-talde markinarrak, nahiz eta bertoko andrekin izan ziren jantziek eta gainontzeko xehetasunei azken ikutua eman ziotenak, eta esan beharra dago herri osoa oso pozik geratu zela.

Urte hartako jai-egitarauan agertzen da emankizuna; dantzari buruzko aipamena egiten da bai erdaraz, baita euskaraz, eta historia laburra azaltzen da bertan, Zerutxu taldearen lana ahaztu barik, jakina. Irailaren 8an izango zela dantza eta txistu jaia irakur daiteke programa hartan, eta Markina-Xemeingo Zerutxu dantza-taldeak *"lehenago Lekeitiko Emakumeak egiten eben Aureskua* egingo zutela³² esaten da.

Hurrengo urtean, 1975ean, Lekeitioko neskek egin zuten aureskua. Gainera, urte batzuetan zehar, dantza talde bi izan ziren herrian dantza hau egiten zutenak; bata, *Etorkezuna* taldeak, *Zerutxuk* antolatu zuen erara, eta besteak, *Kaixarranka* taldeak, andreen artean ikerketa batzuk egin ostean ezarritako aldakuntza batzuk eginez. Hauen artean nabarmenena laugarren soinua dantzatzea izan zen, *pasamanos* edo *esku-aldatzea* izenaz ezagutzen dena. Soinu honekin, gizonezkoak sokara atera ondoren, sokaren aureskuan dagoen dantziaria, bere bikotekidearekin batera, atzeskuaren tokian jaritzen da. *Zerutxu* taldekoei ikerketa-lanetan ibili zirenean, gerra-urrean ez zela dantza hau horrela egiten esan zieten, ondoren ibili zirenak hasi zirelako dantzan era horretan

32 LEKEITIO 1974. Jai programa.



BAILE DE SAN JUAN

EL AURRESKU DEMUJERES (de Lequeitio)

No hace aún cuarenta años que se solía celebrar esta danza en Lequeitio. Era costumbre del día de San Juan, en que se bailaba a continuación de la Misa Mayor, un poco antes del mediodía. Sin embargo, consta que antiguamente, incluso se bailaba por tres veces y a diferentes horas, con distinta vestimenta cada baile, después de la Misa del alba, de la mayor y del rosario de la tarde. Es un baile a cargo de las mujeres y los hombres son elegidos y sacados sobre la marcha, para completar el cuerpo de baile.

Al día de San Juan se le llamaba "Fiesta del sol", y según los documentos antiguos, al solía ser día de gran festividad local. Sabemos cómo eran los trajes de este baile en el siglo XIX y actualmente se han recompuesto similares prendas a aquellas.

EMAKUMEEN AURRESKUA (Lekeitiokoa)

Ez dira oraindiño berrogei urte, Lekeition, emakumeak auresku au egiten ebela. Doniane egunez egin be, meza naguzi ostean, eguerdi aurrean. Lehenago, ganera, egun orretan iru bidar giño be, egin ohi eben. Emakumeak dantzari nagusi eta gizonezkoak gero, sokarako atara, laguntzaille.

"Eguzki-jai" eritxoan Doniane egunari, eta agiri zaharretan dagoanez, jairik andienetarikoa izan ohi zan emen. Da dakigu XIX garren gizaldian, dantza onetarako jantziak zelakoak zirean be, eta ahalegiñez, areen antzerakoak aukeratu ditugu barriro be.

1974ko Sanantolinetako programa (dantzariak ez dira lekeitiarrak)

egiten. Bizkaiko beste aureskuetan, *esku aldatzeko* dantza egiten denean, bikoteak atera baino lehenago egiten da, sokako dantzariak aureskulariaren tokian jarriaz, hori dela eta dantzaren izena.

Egia esateko, Lekeition urte batzuetan, behinik behin, *Kaixarranka* taldearen era-
ra egiten izan da, batez ere gerra-osteko urteetan. Ez dakigu lehenago horrela egin izan den ala ez, berezia izan arren. Baliteke hala izatea, baina Santi Zapirain eta Alberto Akarregi txistulari zaharrek emandako soinu-
nuen artean ez da esku-aldatzeko soinu hau agertzen izan. Hala eta guzti, era batera zein bestera, biak dira Lekeitioko dantzak. Behin baino gehiagotan talde biak plazaratu ziren

San Antolin jaietan, bakoitza bere erara eta bere izenarekin eskainiz ikuskizuna. Urte batzuk beranduago, *Kaixarranka* taldeak dantzaren egiteari utzi egin zion, eta Etorkizuna izan da urte askotan *Zerutxuk* antolatutako eran, gutxi gora-behera, herriko jaietan dantzatu dena.

Berrogeitalau urte beranduago, 2018an, jai berezia egitea erabaki zen. Hori dela eta, San Juan egunean emankizun berezia antolatu zen; emakume askok hartu zuten parte eta antzinako eran dantzatu zen. Hiru aldiz egin zen: albakuan, eguzkia irteten hasi zenean, eguerdian berriro ere, eta azkenik arratsaldean, eta gainera gorago aipatutako bi eratan, hau da, goizean eta arratsaldean *Etorkizunak* egiten

zuen moduan, eta eguerdian *Kaixarrankaren* eran. Esan beharra dago ikuskizuna benetan ederra eta ikusgarria izan zela, Lekeitiar guztiak pozik eta harro sentitzeko modukoa. Izan ere, San Juan eguneko jaialdi hau berriro errepikatzeko erabakia hartu zen, nahiz eta San Antolin jaiak izan dantza hau eskaintzeko aukeratu den momentua.

1974an, dantza antolatzen aritu izan ginen urte hartan, Eusebio Erkiagak dantzari buruzko bertsoak idatzita zituela jakinarazi zigun, *Egan* aldizkarian 1951an argitaratu zirenak, nahiz eta 1943an idatzia izan ziren, bertsoen azpian idatzita agertzen den data adierazten duen eran. Hona hemen Eusebio Erkiagaren bertsook, amaiera gisa dakartzagunak:

Lekeitio'ko andra-aurrekua

Urte asko eztala
neure erri maitian
Doniane yai batzuk
egiten zirian;
yai berezi bat beste
askoren artian
Andren aurrekua zan
eberdi-aurrian

Danok meza nagusi
ostian plazara
-lagunez yuryiduta
batetik bestera –
oitura begiko au
pozik ikustera;
oba geure egunetan
ba'gendu aukera!

Gona baltzak yantzirik
ta gorantz gorriyak,
buruko zapiyetan
arro txori biyak;
sorbaldetatik txairo
loradun krespoiak,
Manila'n egiñiko
sedazko mantoiak”.

Bira eta artaziyak
irradan puntuak...
aurrera-atzerakadak,
oin-muturrekuak...
Gero neska-mutillak
bizkor pandanguak,
arin-arinak eta
biribilekuak”

Aurreku onen barri
Azkue'k ba-daki
soiñua paperetan
ez al dauko euki?
Tanbolinteru zarrak

ezleuke azturik;
arako bertsotxua
gogora datorkit:

“Zeure bular arteko
kabeliña alpakaua,
zeure begira dago
erriko eskribaua...“
Luisatxu Kaiganeko
gaur be gomutaua,
aurrekua eiteko
beraz izentaua”

Neskatil zoragarri
gitxitxu lakuak
sokan oi ziran lora
udaberrikuak;
laguntzaz bai topau be
euron gustokuak
mutil kolore eder ta
bana-banakuak”

Geure mastiyetako
txakolin gozua
edaritzat, kentzeko
egarri berua;
kai eta liorrian
poz erri osua,
kale zarrak betian
uyuyu zantzua

1943
EGAN 2 aldizkaria.1951ko
Apiril-maiatz-ekaina.

Eusebio Erkiaga



1975eko emakumeen aurrekua. XXX Lopez eta Pedro Murelaga



1975eko emakumeen aurrekua



1995eko emakumeen aurraskua



2001eko emakumeen aurraskua



1980ko emakumeen aurraskua



2008ko emakumeen aurraskua



1990eko emakumeen aurraskua



2018ko emakumeen aurraskua

